

BETI BARKATU BEHAR DA

9 B-H

BIZI-HITZA

«Zazpi aldiz ez,
zazpi milatan
zazpi aldiz»

Mt 18,22

Chiara Lubichen azalpenetik
Gen 3 Zentroak egokitua

LUPAPEAN...

Jesusen ahotik gauza harrigarriak entzun ondoren, Pedrok galdera hau egin zion: «**Jauna, senide batek bidegabekeriaren bat egiten badit, zenbat aldiz barkatu behar diot? Zazpi aldiz?**». Eta Jesusek erantzun zion: «**Zazpi aldiz ez, zazpi milatan zazpi aldiz**».

Baina «**Zazpi aldiz ez, zazpi milatan zazpi aldiz**» erantzutean, Jesusek esaten du **beretzat barkamenak mugagabea izan behar duela: beti barkatu behar dela.**

Barkamena ez da: ahaztea; ez da ahulezia; ez da gaiztoa dena ona dela esatea; ez da axolagabetasuna.

Egin diguten kaltea dena dela ere, senideak diren bezala onartzea da barkatzea, gure hutsegiteak gorabehera Jainkoak barkatzen gaituen bezala.

Barkatzeak esan nahi du irain egin dizunari aukera ematea zurekin harreman berria edukitzeko eta, ondorioz, biok bizitza berri bat hasteko aukera eta gaiztakeriak azken hitza ez duen etorkizuna eraikitzeko aukera.

Orduan, *nola biziko dugu Bizi-Hitz hau?*

"Barkatzea senideak diren bezala onartzea da".



Esango duzue: «**Baina hori zaila da**». Noski, baina hori da kristau izatearen edertasuna. Zerbaitegatik gara Kristoren jarraitzaile. Eta hark gurutzean Aitari eskatu zion, barkatzeko heriotza ematen ari zitzaizkionei, eta piztu egin zen.

Altxa bihotza. Has gaitezen horrela bizitzen, horrek ohizkoa ez den bakea eta poz ezezaguna ziurtatzen baitzizkigu. .



Hilabete honetan
hemeren idatziko
jakin izan dudun
bakoitzean.

Horrela gertatu
zitzaion ...

Davidi (Italia)

Egun batean, eskolan, kide batek esan zidan beste mutil bat ni jo nahian zebilela...

Harrituta geratu nintzen ez bainekien zergatia, baina ez nuen gehiago pentsatu nahi izan. Metroan etxera nindoala konturatu nintzen jo nahi ninduen mutila nire aurrean eserita neukala. Ikustean hurbildu eta masaileko ederra eman zidan. Amorru handia hartu nuen, batez ere, arrazoirik gabe jo ninduelako. Itzultzeko irrikatan egon nintzen. Berehala beste kide batzuk ondora etorri eta keiniz esaten zidaten: "**Eman! Erakutsi ez diozula beldurrik**". Une larria izan zen, alde batetik ezer egiten ez banuen kideentzat barregarri geratuko nintzelako, bestetik besteak bere nagusikeriarekin jarraituko zuelako. Baina momentu hartan pentsatu nuen une egokia zela Bizi-Hitza sakon bizitzeko, jakinda barkamenak ez zuela men egitea esan nahi. Eta horrela, denek erasoko nuela pentsatzen zutenean, geldiro eseri nintzen eta bihotz barruan esan nuen: "Barkatzen zaitut". Beste mutila, berriz, zurtz eginda geratu zen berak ere erantzun gogorra espero baitzuen. Metrotik irtetean, nire lagun batek galdetu zidan zergatik jokatu nuen horrela eta nik orduan barkamenaren Bizi-Hitza azaldu ahal izan nion eta Ebanjelioa edozein masailekoa baino indartsuagoa eta eraginkorragoa dela esan nion.

Bidali zure esperientziak Forum honetara
www.teens4unity.net